


Nu!

www.noaia.com



Zubieta, jaigiroan



Manuel Goenaga

Antonio Aranburu

Gerra Zibileko azken gudariak



Lurretik eta
adiskidetasunetik
etekin hoberenak
lortzen ditugu



Alkartasuna

Nekazarri kooperatiba elkarteak

Ugarte Industrialeen 12

Tiruoa / Faxa. 943 361 114

20170 USURDIL Gipuzkoa

alkartasuna@usurtil.com

Txirrikitutik !

Urte askotan zehar Txokoaldeko Erroizpe Elkartea leku berezia izan da auzokoentzat. Gaur egun ordea elkartearen etorkizuna oraindik zein izango den jakin ez arren, bertan biltzen direnek garai bateko auzo giroa nolako izan zen ez dute hain erraz ahaztuko, ikusi bestela 1950. urtean ateratako argazki hau. Hona hemen ezkerretik hasita ezagutu ditugun auzotarren izen-abizenak: Eustakio Kamino, Ignacio Aranzadi, Angel Aranburu, Antonio Pagola, Jose Mari Iribar, Esteban Illarramendi, Pablo Gorriti, Angel Añorga, Agustin Illarramendi, Nikolas Zubeldia, Gregorio Labaka, Eustakio Aizpurua, Joxe Izagirre, Praxku Galparsoro, Joxe Iribar, Ixidro Maeztu, Migel Muguruza, Pedro Añorga, Joxe Mari Kamino, Joxe Kamino, Fermin Roteta, Francisco Labaka, Jexux Urdanpilleta, Joxe Murua, Patxiku Agirre, Joxe Antonio Labaka, Nikolas Izeta, Joxe Mari Urdangarin, Txomin Ibarguren, Ramon Etxeberria- Bereiarza, Joxe Iturralde, Joxe Portu, Pako Portu, Ignacio Labaka, Joakin Portu, Antonio Urdangarin, Dionisio Portu eta Kandido Mujika.



Egilea: Ezezaguna, 1950, Txokoalde
Jabetza: Erroizpe Elkartea

Zalao Arnaiz Ibarguren

N u !

Argitaratzailea: NOAUA! Kultur Elkartea
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf.: 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com
www.noaua.com

Koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Publizitatea: Maider Alustiza, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Oxkar Santamaria, Maria Angeles Arruti, Maria Jesus Urbietta, Jone Eizmendi, Ekiñe Olaizola, Iñaki Labaka, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfonso Vidal, Alazne Begiristain, Ana Urdangarin, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Eneko Harreguy, Salome Portu, Pello Aranburu, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Aloña Pulido, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Iñaki Agirresarobe. Denborapasak: LUMA, O.E.

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Bazkidetza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio Kontseilua: Imanol Ubeda, Zalao Arnaiz, Maider Alustiza, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza.

NOAUA! hamaboskariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

NOAUA! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:
10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

AZALA

36ko gerra ezagutu zuten Manuel Goenagak eta Antonio Aranburuk.

Aurkibidea

ZUTABEAN, AINHOA AZPIROZ _____ 4. ORR.

BASERRIEN LIBURUA, ON LINE _____ 11. ORR.

AITOR EGILETA, ZELANDA BERRITIK _____ 12. ORR.

Gertutik jarraitzen dugu Aitor Egiletaren zeharkaldia. Munduan barrena dabil iazko abendutik. Ekainean Zelanda Berrian izan zen eta handik bidaia-kronika igorri digu.



KZGUNEA, ABUZTUAN ITXITA _____ 13. ORR.

36KO GUDARIEN TESTIGANTZAK _____ 14. ORR.

EUSKAL TXOKOETAZ HITZ BI _____ 18. ORR.

BERTSO-PAPER LEHIAKETAKO IRABAZLEA _____ 19. ORR.

UDA OSOKO GOARDIAKO FARMAZIAK _____ 20. ORR.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak diruz
lagundutako
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

Zutabea !



AINHOA AZPIROZ

Motor hotsak

Normalean sasoi honetan lasaiago ibiltzen gara. Oporrek, eguraldi beroek, terrazetako giroak, festek... beste erritmo bat jartzen dute. Parranda ederrak edo tertulia luzeak egiteko aitzakiarik ez da falta izaten.

Tertulietarako bera etortzea gustatzen zait. Bera gabe hizketaldiek ez baitute kolorerik hartzen. Bera tartean denean, berriz, giroa bero-bero jartzera iristen da. Gaur kopetilun etorri da. Zerbait badabilki buruan jira eta buelta.

Beste erronda bat eskatzera joan naiz eta mahaira itzuli naizenerako han ari ziren aurreko asteburuko Bilboko auto lasterketari buruz, Renault-ek antolatutako Munduko Serieak.

- Zarata izugarria duk. Osasunaren Munduko Erakundearen irizpideen arabera, 120 dezibeliotik gorako soinuek mina sortzen ditek. Kaltegarria duk osasunarentzat.

- Bai, kutsadura akustikoz gero eta gehiago entzuten duk. Zenbait hiritan "zarataren mapak" ere egiten hasi dituk.

- Gainera, motor hots horrekin ezin duk hitz egin ere egin. Urrutitik hasten haiz entzuten, eta gerturatu ahala, gero eta gehiago. Jakin nahiko nitek zenbat kilometro urrundu behar duten ezer ez entzuteko!

- Aldamenetik pasatzean, ezin hizketan segi! Isildu eta itxaron egin behar pasa arte. Hegazkinekin baino okerrago!

- Eta normalean, ez ditun banaka ibiltzen, taldean baizik. Denak batera burrundand!

- Hor dezibelioak neurtu eta kopuru jakin batetik pasatzen badituk, udalak ezin al dik ezer egin? Ez zekiat... Isunak, zirkulatzea debekatu, zeozer aldatu...

- Egia duk, inork ez ziek ezer esaten. Ez zagok inolako mugarik. Gau eta egun, atzera eta aurrera. Hor ibiltzen dituk.

Gau eta egun, atzera eta aurrera... Pixka bat esajeratzen ari direla iruditzen zait.

- Aizue, baina Bilboko Munduko Serieak auto lasterketa bi egunetan baino ez zen izan. Dagoeneko zarata hori ez da entzuten. Ez al zarete esajeratzen ari?

Denak begira gelditu zaizkit, zertaz ari naizen galdezka bezala.

- Ez hadi joan hain urruti, zera, Bilboraino. Gu hemen goaz ari gaitun, Usurbilgoaz...

Eta segidan esan duena ez diot entzun, moto bat pasa baita izugarriko zarata ateraz. Begien bistatik berehala pasa da, dagoeneko ez dugu ikusten, honezkero Kaparotzeko errebueltan izango da. Baina, zaratak oraindik belarriko zuloraino sartuta segitzen du.

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregerai

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA.

ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA,

NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen **IKA MIKA** atalean adierazitako esanen eta iritziaren erantzunkizunik.

Hurrengo alea: irailak 9. Idatzia ekartzeko **azken eguna:** irailak 2.

ASKO DUGU ESATEKO

NOAUA! hamaboskaria, Euskal Txokoak, tren eta autobusen ordutegia, noaua.com, kultur ekitaldien sustapena, euskararen normalizazioa, urteko egutegia, beka deialdiak, **NOAUA!** Txiki, Fototeka, Plis, Plas, Txalo ta Jolas, "Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak"... Gure bazkideak harro egoteko moduan dira. Baina gehiago eta hobeto lan egin daiteke.

Zure babesa funtsezkoa da kultur elkarte honen sustenguan.

Bazkide egin zaitetz!

36 euro urte osorako

Izena: _____

1.Abizena: _____

2.Abizena: _____

Helbidea: _____

Herria: _____

Telefona: _____

E-posta: _____

Kontu Korrontea:

Orrialdea bete eta **NOAUA!**ra ekarri edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Udalak eskultura bat jartzera baztertu du

Gure Artera Bilgunea eta Askatasuna. Usurbil, 2005eko uda

Udalak, Kale Nagusiko errotonda berrian Alejandro Tapiaren eskultura bat jartzeko proposamena baztertu du.

Gure Artera Bilgunea eta Askatasuna taldeok bultzatuta, proposamena hainbat herriko talderen babesarekin aurkeztu arren, Udalak ez du izan ezta idatziz erantzuteko gutxieneko errespeturik ere. Egitasmoa ondoko taldeek babestu dute: Aginagako Kultur Kirol Elkarte; Aitzaga Elkarte; Akerra Gaztetxea; Andatza KKE; Aralar; Batasuna; Bota Punttuba; Buztinzulo Keramika Taldea; Elkarri-Usurbil; Erle Lagunak; Etumeta AEK Euskaltegiko irakasleak; Etxerat; LAB; Mahaspildegia Elkarte; Noaua! Kultur Elkarte; Odol Emaileen Elkarte-Usurbilgo ordezkariak; Sagardo Egunaren Lagunak; Aitzaga, Benta, Bordatxo, Txiriboga, Txirristra eta Zendoia tabernak; UHL; Usurbil bizirik eta Zumarte Musika Eskola.

Kontua aspalditik dator, errotonda berria egiten hasi aurretik. Hainbeste nahigabe eta sufrimendu eragiten duen sakabanaketa salatze, eta presoek giza eskubideak errespetatzeko eskakizuna era iraunkorrean aldarrikatzeko, herrian oroi-garri bat, artelan bat, jartzeko aukera otu zitzaigun. Hala, leku egoki bat hautatu ondoren (errotonda berria), Alejandro

Tapiarekin jarri ginen harremanetan. Honek, ideia bereganatu eta hilabete batzuen buruan, Xabier Leteren Izarren hautsa poematik hartutako "Gu sortu ginen enbor beretik, sortuko dira besteak, burruka hortan iraungo duten, zuhaitz-ardazka gazteak" leloarekin izendatutako eskulturarekin liluratu gintuen. Egitasmoa burutzeko aurrekontuak bildu, finantzabideak aztertu eta proposamena idatzi ondoren, ezer baino lehen herriko gainontzeko taldeei helarazi genien beraien iritzia ezagutzeko. Bi taldek bakarrik adierazi zizuten proposamena ez zutela babestuko, gainontzeko erantzun guztiak aldekoak izan ziren.

Hala, 2004ko abenduaren 1ean, proposamena Udaletxean aurkeztu genuen. Sarrerako idatzian, 2005. urteko aurrekontuak egiterakoan proposamena kontutan izateko eskatzeaz gain, eskulturaren maketa erakutsi eta egitasmoaz hitz egiteko lehenbailehen bilera bat egiteko hitzordua eskatu genion Alkateari.

Alkateak, ia hilabetera, abenduaren 30ean, hartu gintuen. Alejandrok maketa aurkeztu eta eskulturaren inguruko azalpenak eskaini ondoren, Alkateak beraien jarrera ezagutarazi zigun: gaur egun presoek aldeko halako aldarrikapen ostentosoak planteatzea, probokazioa da; areago, eskulturari izenburu hori ematea (artistak berak aukeratutakoa) ETaren apologia egitea

da; beraz, egitasmoa babestu ezina da. Entzundakoak entzunda, zur eta lur, erantzuna idatziz helaraztea eskatu genion, besteak beste, proposamena babestu zuten taldeek ere Udalaren iritzia ezagutzeko eskubidea zutelako. Alkateak halaxe egiteko hitza eman zigun.

Gaur oraindik ordea, Alkatearen erantzunik ez dugu jaso, eta dagoeneko sei hilabete pasa dira. Bitartean Udalak 2005. urteko aurrekontuak onartu ditu. Aurreikusitako bezala, bertan ez da eskulturaren egitasmoa jaso. Horrexegatik, erantzun idatziaren zain egoteaz nazkatuta, gertatutako guztiaren berri ematea erabaki dugu. Herriari eta babestu diguten taldeei hori behintzat zor diegulako.

Alkateak erakutsitako errespetu eta begirune eskasa salatzeaz gain, egitasmoa baztertzeko emandako arrazoiak zentzugabeak dira: noiztik da probokazioa, euskal presoek Euskal Herriratzea eta presoek giza eskubideekiko errespetua eskatzea? zer da ostentoso? noiztik da ETaren apologia egitea, euskal presoek Euskal Herriratzea eta presoek giza eskubideekiko errespetua eskatzea? Gezurra badirudi ere, Alkatearen argudioak, euskal herritarren espetxeratzeagatik hain ezaguna egin den Garzon epaileak erabiltzen dituen berak dira. Zorionez, herriko talde asko, herritarren gehiengo zabala ez da iritzi berekoa. Eskerrak.

"Alejandro Tapiaren proposamena, pintura beti izan duen bere estilo propioaren jarraipena da. Bere koadroetan ikusi ohi ditugun paisaia, baso edota belazeekin ez dago etenik. Eskultura honek ere, naturarekin lotura zuzena du.

Bertan, naturaren aniztasuna eta oreka islatzen ditu. Aniztasuna, zuhaitz enborren ordenarik gabeko dantzak adierazten digu. Noranahi zabaldurik, okertuta, bihurrituta, korapiloz beteta daude enborrak. Formak desberdintzen ditu bata bestearengandik. Oreka berriz, zuhaitz enborrak elkarrekin txirikordatuz osatzen duen konposizioak adierazten du. Naturan gertatzen den legez, Alejandrok osatutako konposizioan ere, bizi irauteko batak bestearen premia eta beharra duela nabarmen geratzen da. Eta halaxe gertatzen da Euskal Herritik urrun sakabanatuta dituzten euskal presoekin ere. Haien guztiak behar gaituzten bezain beste, behar ditugu guk haiek.

Hasiera batean erabateko anabasa dirudiena, soseguz begiratuz gero, konposizio orekatua irudituko zaigu; inguruarekin armoniaz uztartuko den konposizio paregabea".

Gure Artera Bilgunea eta Askatasuna





KOLDO HUEGO

Txokoalde

Erriberako sarrerak eta pasonibelak

Kaixo auzotar guztioi: berriro ere, hemen natorkizue herri aldizkari honen zirrikituak estaltzeko balioko duten hitz batzuekin, eta bide batez auzo hau bizi dela seinale eman nahian, betelanian, alegia.

Lehengo jardunean, baserria eta bere inguruan protagonista, urtaroak aginduta erretze bizian zegoen gremioa. Oraingoan ere, tartetxo bat merezi duelakoan nago, aurrekoan udaberriak eta honek dakarren oparotasuna bazen hizpide, oraingoan uda, eta gero eta sarriago jasan beharra tokatzen zaigun lehortea da nagusi. Dena ez dugu kontra hala ere. Egoera hau dela eta, belarrak giro ederrean jasotzeko aukera izango dugu eta.

Betalde aurrekoan firma bilketa baten berri

ematen nizuen, erriberatako sarrerak eta pasonibelak direla eta ez direla, ba esan kontu honekin udaletxera jo nuela eta nekazal teknikariari auzotarrek emandako kexaren berri eman nion, arazo honek duen garrantziaz eta arriskuaz aritu ginen biok.

Pasonibelen inguruan, bat egiten zuten bion iritziak, eta oso arriskutsuak zirela ados geunden, baina kompetentzia nori dagokion ez zegoen batere argi teknikariaren ustez.

Erriberetako sarrerei dagokionean bion iritziak nahiko kontrajarriak ziren, eta jabetza zela eta berak ez zeukan oso argi udaletxearen esku-mena ote zen. Hala ere, gaia aztertzekotan gertatu zen. Ea firma bilketaren beharrik izaten ez dugun.



IÑAKI AGIRRESAROBE

Kaleberri

Uda jolasean

Festetako ajea pasa ondoren, kaxkoan umeek hartzen dute protagonismoa. Alde batetik, oporretan daude eta beraien presentzia inoiz baino nabariagoa izaten da plaza inguruan. Txikienak, berriz, Udajolasen ibiltzen dira. Goizeko 9:00etan elkartzen dira frontoian. Batzutan, herriko edozein parketan ikusten dituzu; bestetan, hondartzara ere joaten dira. Eguna joan eguna etorri, makina bat gauza egiteko denbora dute. Uraren Eguna ere izan zuten, han ibili ziren globo gerran bata besteari ura botaz. Horretaz gain, erakutsiko ote diete urak duen garrantzia eta honen erabilpen egokia ere? Baietz espero dugu.

Argi dago, modu honetako zerbitzuek gero eta eskaera zabalagoa dutela. Gurasoak lanean aritzen dira eta aukera ezin hobea izaten da haurrak etxean izan baino jolasean ibiltzeko. Garaiak aurrera doazen moduan, herriek horrelako zerbitzuak emateko aukera aztertu beharko



dute. Haurtzaindegia dugun moduan adin tarte honetarako ere opor garaiko zerbitzuak egokiak izango lirarteke.

Bestalde, seguru dagoeneko konturatu zarete-la Kultur Etxe berrian armarriz zoragarri bat jarri dutela. Lehen ere, bertan zen eraikinean zegoen armarriz ote?

San Roke ahaztu gabe

Kaixo guztioi oraingoan ere! Zer moduz **K**doakizue aurtengo uda? Duela aste bat nahikoa eguraldi kaskarra egin zuen arren etorri da beroa berriz ere. Aurtengo uda zeharo beroa izango dela esan da behin eta berriro eta egia esan nahiko bero egiten ari da. Baina zer nolako beroa da hau? Bero hau oso arriskutsua da guztiontzat eta zer esanik ez hirugarren adinekoentzat. Telebistan behin eta berriro esaten ari dira kontuz ibiltzeko beroarekin, ez baita lelokeria.

Bero honek dakarren beste arazo bat aire egokituarena da. Aire egokitua ahal izanez gero denok erabiltzen dugu, baina oso arriskutsua da, izan ere aire hau erabili ondoren kalera irten eta kontrastea ikaragarria da eta aldaketa hori oso kaltegarria da osasunarentzat. Beraz, ondo zaindu zaitetze denok.

Bestalde uda aurrera doan bezala festak ere aurrera doaz. Konturatu garenerako uztailearen erdialdean gaude eta jadanik San Joanak eta Santixabelak igaro dira. Hala ere, ezin kexatuko gara, oraindik urtea bukatu arteraino, Zubietako, San Estebango eta Aginagako festak gelditzen zaizkigu usurbildarroi.

Bukatzeko herritar guztiei gogora arazi nahi dizuet kalezarren beste festa bat ere ospatzen dela abuztuaren erdialdera, "San Roke" hain zuzen ere. Oso giro polita izaten da auzoan eta beraz guztiok animatu nahi zaituztet jai honetara.

Beno, mila esker NOAUA! irakurtzen duzuen guztioi ale honetan ere gure artean egon izanagatik. Hurrengorarte.

Kalezar



ALOÑA
PULIDO

Telebista eta egunkariaren harira

Dirudienez herrian denak berdin jarraitzen du; betiko kontuak. Mugimendua egon dela ezin ukatu, ordea: lapurretak, heriotzak... Beste sute bat egon da Atxegaldera biderako landareetan – ohitura bihurtzen ari da, antza.

Baina oraingoan ez noa Atxegaldez mintzatzerara, jendearen portaeraz baizik. Jende guztiaz, gertatutakoa erraz ahazten dugun guztiotaz. Telebista eta egunkariak kontatutakoaren harian bizi garenotaz.

Agintariak gertaerak antolatzen dizkigute beraiek izatea nahi duten garrantziaren arabera, eta onartu beharra dago oso eroso dela. Baina honen ondorio zuzena da Londresko atentatuen oihartzuna bi aste luzez edonon entzutea, munduko beste lekuetan gertatzen denaren berri jakin barik. Berrogeita hamar ingeles heriotza etengabe errepikatuz, egunkari guztietan titularririk handienak izan dituen albistea, dudarik gabe.

Bitartean Kuba, Haiti eta Jamaika "Dennis" izeneko urakanak utzitako zorigaitza pairatzen.

Filipinetan eta Txinan ere milaka ebakuazio izan dira uholdeengatik. Baina bertako hildakoek ez dute baliorik guretzako.

Telebistan Londresko atentatuaz hamar minutuz hitz egin ondoren, segundo batzuetako tartea eskaini zieten lehengo astean Ertamerikako eta Asiako gertaerei. Egunkarietan hamar orrialdeko eranskinak "terrorismo islamikoaz", eta orri erdi bat beste albisteari.

Azken egunotan, ordea, urakana Floridara iritsi da eta Amerikako Estatu Batuen erdialdera sartzen hasi da. Orain bai, orain garrantzia du. Haiti beste ekaitz baten arriskuan dago, baino ez ezazue espero informazio handirik. Albiste uholdea Ingalaterra eta Amerikako Estatu Batuetatik etorriko baita, beti bezala.

Gure interesa etengabe kontrolatzen dute komunikabideek, eta honek nahi eta nahi ez gure pentsaera baldintzatzen du. Orain esadazue: bizitza batek beste batek baino gehiago balio al du? Benetan merezi al du beste batek gure partez pentsatzeak?

Atxegalde



NEREA
KORTA

ALEX
TELLO

Santuenea

hOria

Ezustean ahots magiko batek (zeinena ote?) Entzumenak bahitu eta inguruan dugun paradisuaz mintzo zitzaidan. Aspaldian, kumea izan zen sasoiaren ezagutu zuen eta gizakiok ikusi ezin dugun TOKIAZ (ezinbestean, irudimenaren irudikapenarekin ez bada) hitz egin zidan. Ahots harek iragan hOrien irudi hOriak oroitu zituen:

Bazen itsasora urbildu ahala gero eta zabalagoa zen ibaia. Ibai hura, zergati ezjakinarengatik, kolorearen magiaz sorgindua zegoen. Bizidun askoren bizitokia zenez, bertan ur geza, nahiz ur gaziko izaki urtarrak, baita hegaz egin zezaketenak eta izaki lurtar ugari ere (ertzeetako erribera luze zabalean...) bizi ziren.

Ibaiaren ura edaten zutenek ala ur hOriaz busintzen zirenei kolorea aldatzen zitzaien: hOriak bilakatzen ziren.

Ibaiaren biztanleak, hOriak oro, igerian edota urazpian, putzuetan jolasten, bestela ibai ertzean etzanda, arroka hOrien freskuran eta eguzki hOriaren edo zuhaitz hOrien babesean, modu

ezin hobean bizi ziren. Paraje hartan egun eta gauak kolore hOrietan argitu eta iluntzen ziren.

Aparteko giro hOrian bizi ziren guztiak, guztientzat kolore ezezagunekoa zen izakia (herensuegia ote?) agertu zen arte. Egoitza ibaiaren sorlekuan kokatzeaz gain, bertan sumendia eraikitzen hasi zen, bailara hOria su-labaren arriskuan jarriaz...

Santueneko zubietatik begizatzen diren bazter hauetan, Oria ibaian gordetzen (edo ezkututzen) diren hOriez guztiez jabetzen?

Norbera bere barnean sortzen diren bazter miresgarriak ikusten saia daiteke.

Oporretan (eta urte guztian) irudimenaz askatzeak merezi du. Ihesbiderako ez ezik, pertsonaren aurkikuntza ahalbidetzen baitu.

Aitzitik, irudimenarekin jokatzeko moduan ez bagaude (lo-ametsen ordurako bestela!), erriberako leku atsegin batetik, paisaia kokatu eta ohar-kabea, zentzumenen mesedean barreiatu edo distraitu gaitzke.

NEREA
AZIPURUA

Urdaiaga

San Estebanak gainean

Agur bero bat guztiei San Esteban alde hone-tatik!

Paraje hauetan gertatzen denaren berri ematea ez da erraza suertatzen sarri... batik bat ezer gutxi gertatzen delako noski... baina saiatzen ez garenik ezin esan genezake behintzat! Uda eta festa giroan sartuak gauden honetan, gure auzoan ere ari gara gutxi batzuk auzoko festak antolatzen. Izan ere, hilabete baino gutxiago geratzen da eta konturatzerako San Estebanak gainean izango ditugu.

Aurten gainera, festak prestatzen lan gutxi ez eta obrero lanetan aritzea tokatu zaigu; izan ere, festetan erabiltzen dugun lokalean obretan aritu gara. Komisiokoek eta auzokoek, elkarlanean, lan polita egin dugu, eta oraindik zer eginik gelditzen bada ere, festetan lasai ibiltzeko aukera izango dugu behintzat aurten. Lokala eta festetako aitzakiarik ez da faltako gurean... Baina festako giroa eta ambientea jartzea guztien lana izango da. Beraz, hasi San Estebango festak prestatzen, urterro legez, festa hauek ahaztezinak izan daitezen!!



Piperrak biltzeko garaia

Epa denoi! Uda iritsi zitzaigun eta honekin batera baita beroa ere; Aurreko aste horretan eguzkiak ederki goxatu ditu bazterrak eta egunen batean gehiegitxo ere bai. Eguzkia gustora hartzen dugu baina barazetan lanean jardun behar dutenek euri pixka bat ere eskertzen dute noizean behin.

Uda guztietan bezala piperrak ere landatu dira inguruko barazetan, eta hauek biltzen hemen-txe dabilta kanpotik etorritako gizon-emakumeak. Goizean etorri eta iluntzararte jarduten dira piperrak bildu eta bildu edo lanak aurretik bukatu ezker goizago etxe aldera joateko aukera izaten dute.

Aurreko asteburuan hondartzarako edo nora-naiko giro ederra egin zuen eta eguraldi ona



aprobetxatuz Intxaurreta aldean Guardia Zibilak kontrola jartzea pentsatu zuen, hantxe egon ziren arratsalde pasa.

Ondo pasa eta hurren arte!

Aginaga



**AINHOA
SALSAMENDI**

Zubietarrak blai

Goizeko 8:05etan jendea Barazarrera inguratzen: 48 zubietar aipatutako ordurako txintxo-txintxo ostatuaren aurrean. Inork ez du ulertzen nola litekeen denok garaiz iritsi izana. Imanol bera ere hantxe dago. Patxiren kezka: zenbat kotxe tabernaren aurrean!

8:30ak dira. Abiatu gara Arcachonera Aizpurua autobusean. Berehala umeen zarata: Pelikula-pelikula-pelikula!!! ... Hamaiketan Arcachoneko Aqualand-aren atarian. Denok korrika barrura, blai geratzeko prest.

13:00 Txirrista handia. 48 lagun oso ausartak, baina txirrista honetatik behera hiru besterik ez.

13:30 Plastikoa lurrean jarri, 100 lagunentzako adina janaria atera –puru eta guzti– eta denok jatera, plastiko gainean dena agortu arte, txerriek beraiek ere ez lukete hura hain garbi utziko.

18:00. Autobusa garaiz, zubietarrak berandu. Haurrak aurretik, besteak atzetik, badakizue betiko ohiturak.

20:30 Zubieta. Etxean gaude, kronika bukatuta.



Zubieta



**GARAZI
ITURRALDE**

Ika-mika !

Udalari gutun irekia

Ekainaren 10eko NOAUA!!ko Udalaren publie-reportajeari buruz (I)

Udaleko arduradunok, NOAUAREN 207. zenbakian argitaratu duzuen publie-reportajearen "Esaiozu Udalari" izeneko atalean herritarrek beren iritzia ematera gonbidatzen dituzue, esateko ditudan lauzpabost gauzatxo argitzeko zuzentzen naiz zuengana, aurretik, nola ez ba, herritarroi aukera paregabe hau zabaltzeagatik eskerririk beroenak emanaz. Oraingoan gure etxeko leihotik egunero ikusten dudana bakarrik jardungo dut, eta hurrengo atalean asko kezkatzen nauten kontu batzuez (...).

Egunero ikusten dut Puntapax erreka plastiko eta zaborrez betea. Baita berriki bide bazterreko belarra moztu eta motz-motz gelditu denean, bistan gelditu diren plastiko puska ugariak ere, beti bizirik dauden lore zuriak bailiran, zein apaingarri polita! Egunero, gau epel hauetan are gehiago, logelako leihoa irekita lo egin nahi izaten dugu baina ezin da kontrolik gabeko motoak (eta ez dira gutxi) gure herri aurreratu honetan libre dutelako belarrietako tapoirik gabe ibiltzen diren herritarrek eta dagoeneko gorrak direnak ezik, beste guztiak gogaitzea, ez dutelako zarataren muga arazoizkoetatik

pasatzeko debekurik, eta baldin badute berdin dio, inork ez baitie betearazten. Egunez ere, horietako makina beldurgarri bat ondolik (eta ez hain ondolik) pasatzen bazaigu bihotzak salto bat egiten digu eta belarriek min. Honen aurkako neurri zorrotzik Udalak hartzen ez badu, nork hartu behar du? Eta orduan zertarako ordaintzen diegu arduradunei? Udako gauetan egunero, gertu dugun pub-eko terrazako zaratak (noren ardura da?) jasan beharra daukagu batzuetan gau osoan. Zergatik herri honetan jendeak oihuka hitz egiten du ondokoarekin, zergatik egiten du pixa kalean, zergatik botatzen ditu zigarrokinak lorategietara eta karkaxak espaloietara? (...).

Gure auzoan auto batzuk Puntapax kalean inpunitate osoz gaintzen dituzte arazoizko abiadura muga guztiak, ez dugulako abiadura moteltzekoak hemen ere jar ditzaten zortetik izan. Espero dugu laster izatea hemen horrelakoren bat, agian hurrengo hauteskunde kanpaina... nork daki. Artzabal etxetako frontoiko fokoek gau osoa pasatzen dute piztuta, argindarra aurrezteko modu zeharo ereduagarria (...). Argiak itzalita aurreztuko litzatekeenarekin,

abiadura moteltzeko mundialak eros ditzaitezue, eta oraindik dirua soberan izango litzateke herriko motero guztiei silenziadore bana oparitzeko (...). Egunero ikusten dut jendeak (eskerrak gutxi batzuk diren) bere etxetik zaborra ateratzean kale izkin batean uzten duela, batzuk kontainerra urrutitu dutelako, baina beste batzuk kontainerra 20 metro eskasera edukita. Gero zakur eta katuak poltsak puskatu eta barrukoa barreiatzeaz arduratzen dira. Horrelakorik hirugarren munduko herrialdeetan bakarrik gertatzen dela, honetan nirekin ados egongo zarete uste dut. (...). Eta bitxiak: gure auzoan "zabor organikoa" dioten kontainer berri batzuk daude. Adkiszio polita. Baina adi, galdera: horra zabor organikoa botatzen bada (halere, zertarako?, konpost baliogarria egin ordez, hortik San Markosa eramaten baituzue bertan alferrik galdu eta hango bizilagunei arazoak besterik ez sortzeko), nora bota behar dira ontziak, papera eta kristala ez den beste guztiak? Eta, gainera, zertarako bota ontziak kontainer horira, gero horiek ere San Markosen botatzen badira? Jarraituko du...

Muskilda Tellabide Amunarriz

Ika-mika !

Udal langileoi jazarpenik ez

Azken denboraldian jazarpen jarrerak ematen ari dira Usurbilgo Udaletxean, zenbait langileren aurka, Alkate, zinegotzi eta partidu politiko batzuen partetik. Gainera jazarpen hori hedabide publikoetan egin izanak larriagotu egin du arazoa.

Eraso hauek jasaten ari diren langileei bere babes eta elkartasunik zintzoena adierazi nahi izan die Usurbilgo Udaletxeko langileen Batzarrak, gaurko egunez bertan bildutako langile guztien oniritziarekin.

Jazarpen eta eraso jarrera guztiekin

amaitzeko dei berezi bat egiten diegu Usurbilgo Udal agintariei: Utz gaitzatela bakean, lanean, inolako presiorik gabe.

Langileen Ordezkariek. Usurbilen,
2005ko Ekainaren 30ean.



Baserrien liburua, on line

Iazko gabonetako oparia izan zen. Gaur egun ere, estimazio handia duen liburua da "Usurbilgo baserriak eta baserritarrak" izenekoa. Orain, urrats berri bat eman du NOAUA! Kultur Elkartek. Plazagunea enpresaren bitartez, Internet sarean da Josu Tellabidek idatzitako liburua, honako helbidean: www.noaua.com/baserriak.

Sistema arin bati esker, liburua oso-oso-rik edota atalka irakurri daiteke.


Duela urte batzuk sinestezina zirudien. Gaur egun, Internet sareari esker, 800 orrialdeko liburua ordenagailutik bertatik irakurri dezakegu. Bai. Egia da. Irakurtzeko, paperezko edizioa egokiagoa da. Internetek, ordea, beste abantaila batzuk ditu: nahi adina bilaketa egin daitezke era erraz eta arin batean. Kontsultak egiteko tresna praktikoeekin osatu baita hizpide dugun web atak berria:

www.noaua.com/baserriak.

Kontsuluten atalean, izena izan daiteke baserri jakin bat aurkitzeko modua. Edota abizenen atalean klikatuz. Aukeran, kokalekuaren bidez, auzoz auzoko kontsultak egin daitezke.

Irakokizunak egiteko aukera

Behin kalean dela, zaila da liburuan argitaratutakoa zuzentzea. Argitalpen berri bat egin arte, ezinezkoa. Interneten, ordea, ez. Berehala aldatu edo moldatu daitezke idatziak. Irakokizunak egiteko aukera ematen du web orrialdeak, "Irakokizun bat bidali" klikatuz. Irakokizun bat bidali nahi baduzu edota akatsen bat topatu eta jakinarazi nahi baduzu, pantailan azaltzen den formularioa bete eta eman zure azalpena. Argazki bat web orrian gehitu nahiko bazenu, berdin. Baina argazkiaren kasuan, irudia helbide honetara bidali: elkartea@noaua.com.



WWW.NOAUA.COM/BASERRIAK KLIKATZEAN, LIBURUA KONTSULTATZEKO AUKERA GUZTIAK AZALDUKO ZAIZKIGU BEGIBISTAN.

Liburua, salgai oraindik

Interneten zintzilikatzean, urrats berri bat eman du NOAUA!k. Baina esan dugu. Liburu bat irakurtzeko, papera baino euskarri egokiagorik ez dago.

Iazko abenduaren hasieran "Usurbilgo baserriak eta baserritarrak" liburua salgai jarri eta, berehala, ale asko saldu ziren. Apurka-apurka bada ere, ondo saltzen ari da oraindik. Etxerako edo oparitzeko, liburua estimazio handikoa baita.

NOAUA!ko egoitzan bertan erosi daiteke Josu Tellabidek idatzirikoa. Baita honako saltokietan ere:

Lizardi liburudendan, Laurok liburudendan, Kioskoan, Txapartegi harategian (Aginaga), Eiza dendan, Peña Pagola Elkartean, Alkartasuna Nekazal Kooperatiban, Zumeta jatetxean, Barazar jatetxean, Alamandegi jatetxean, Santueneko Esnaola dendan eta Urbilgo Eroskin.

Bazkideontzat, merkeago

Liburuak 38 euroko prezioa du. NOAUA!ko Kultur Elkarteko bazkideok, ordea, 25 eurotan eskuratu dezakegu lehen liburua (bigarrena, 38 eurotan). Bazkide izateak dituen abantailak.

Zendoia

Kale Nagusia 3b · 943 37 40 71

ERRAZKIN
IGELTSERITZA
OROKORRA

Kale Nagusia 1
629 420565 · 649 435 470
943 365 125

I l t s r t z

Mugikorra: 649435475
649435476
943 363370- 361439

JOSETXO IKATZETA

Iturgintza

TELF: 943 36 20 26
687 95 12 25

Zelanda Berria, Aitor Egiletaren begietan

Behin baino gehiagotan aipatu dugunez, Aitor Egileta iazko abenduan hasi zen munduari itzulua ematen. Lana urtebeterako utzi eta, ordutik, batetik bestera dabil usurbildar gaztea. Brasilen hasi zuen zeharkaldia. Paraguai eta Uruguai bisitatu ondoren, Argentinarako bidea hartu zuen. Patagonia osoa egin eta handik Ekuadorrera jo zuen. Galapago irlak bisitatu eta gero, Perun barrena murgildu zen Aitor. Aurreko NOAA!n aipatu genuen bezala, maiatzean Polinesia izan zen eta ekainaren hasieran Zelanda Berrian. Azken herrialde honetako bidaia-kronika osoa noaua.com helbidean aurkituko duzu, Aitor Egiletari eskainitako tartean hain zuzen. Dena den, kronika horren datu eta argazki batzuk bildu ditugu orrialde honetan.

Aitorri atal berezi bat egin diogu noaua.com web orrialdean. Bertan jasotzen ditugu bere bidaia-kronikak eta argazkiak. Zelanda Berrikoa da igorri digun azkena. Bertan aipatzen duenez, *“nahiz eta ingeles kutsua izan, askoz ere irekiagoak dira kiwiak (horrela deitzen diote beren buruari). Adiskidetsuak eta alaiak orokorrean”*. Arreta handikoak gainera, kalean galderaren bat egin eta era gutzietako azalpenak emateko prest izaten dira Zelanda Berrikoak.

Aitor Egiletak dioenez, *“lasai bizi dira. Bizitza lasaiera ohituta daude eta behin arratsaldeko 17:00etatik aurrera, dendak itxi eta kaleak hustu egiten dira. Pixka bat*



ZELANDA BERRIKO FRANZ JOSEF GLAZIARREAN ATERATAKO IRUDIA.

aspergarria izan daiteke”.

Zelanda Berrira joan nahi duenak azalpen interesgarriak topatuko ditu Aitorren kronikan. Esate baterako, Zelanda Berrian Euskal Herrian dauden antzeko prezioak aurkituko ditugu: *“zenbait gauza garestiagoak, batez ere alkohola. Hoteleko gau bat bi pertsonentzat 50 euro, ur botila supermerkatuan 0,60 euro, zerbeza tabernan (330 ml) 2,75 euro, afari normal bat 22 euro, albergean lo egitea 11 euro”*, hala dio Aitorrek.

Klima, geografia, komunikazioa edota bertako paisaien deskribapenekin osatzen da Aitorren kronika (oso-osorik, www.noaua.com helbidean).

“The Basque history of the world”

“Auckland hirian liburu denda batera sartu nintzen zenbait mapa erosi asmoz, eta hara nere sorpresa, Mark Kurlansky-ren “The Basque history of the world” edo munduaren euskal historia liburua apalategi batean ondo nabarmendua ikusi nuenean. Azaleko ikurriñaren koloreek nire arreta bereganatu zuten. Beraz, ezin izan nuen dendatik atera liburua esku artean izan gabe”.

Kronika osoa eta irudi gehiago www.noaua.com orrialdean



MORDOR-eko LURRETAN BARRENA.



MILFORD SOUND-eko FIORDOAK.



ZELANDA BERRIKO AUCKLAND HIRIA, GAUEZ.

Lanbide bat ikasteko aukera

Lanbide Hastapeneko tailerretan matrikulatzeko garaia da. Ikastaro hauek 16-21 urte bitarteko gazteei zuzenduta daude, Bereziki, ikasten ari ez direnei edota langabezia dauden gazteei.

Lanbide ezberdinak ikasteko aukera dago. Aginagako tailerretan, sukaldaritza-gozogintza edota ile-apainketa-edergintza ikasi daiteke.

Lasarte-Oriako tailerretan, igeltsaritza-teknika berriak edota zurgintza-egurra.

Eta Andoainen, automobilaren karrozeria edota galdaragintza-soldatzea.

16-21 urteko gazteei zuzendua

Ikastaroen bi urteko iraupena dute eta lehentasuna Usurbilgo herritarrek izango dute. Bereziki, 16-21 urte bitarteko gazteek, ikasten ari ez direnek edota langabezia daudenean.

Izena emateko epea irailaren 15ean amaituko da, baina kontuan izan abuz-



AGINAGAN DAGOEN LANBIDE ESKOLA.

tuan ezingo dela matrikulazioa egin.

Informazio gehiago, udaletxean eskuratuko duzu edota telefono zenbaki honetara deituz: 943 37 19 51.

Lan-kontratu asko

Ikasteaz gain, ikasleek praktikak egiteko aukera izango dute. Lanbide bat ikasi eta lantegietan praktikak egiteko eskaintza zabala baita. Gainera, lanbide hauen inguruko eskaria handia denez, praktiken ondorioz lan-kontratu asko sortzen dira.

KzGunea, abuztuan itxita

Usurbilgo KzGunea itxita egongo da abuztuan: uztailaren 30etik abuztuaren 31 arte, biak barne. Egun horietan, Donostiako hiru KzGune egongo dira zabalik:

1. Ernest Lluch Kultur Etxea: Anoeta Pasealekua, 7 (943 46 57 18).
2. Okendo Kultur Etxea: Nafarroa Etorbidea, 7 (943 29 74 49).
3. Alderdi Ederreko Udal Liburutegia: Alderdi Eder Parkea, z/g (943 42 38 65). Hiru KzGune hauek astelehenean larunbatera egongo dira irekita: goizez, 10:30-14:30; arratsez, 16:30-20:00. Hori bai, Donostiako Aste Nagusian goizez zabalduko dira bakarrik.

Usurbilgo eta inguruko gainontzeko KzGune guztiak itxita egongo dira uztailaren 30etik abuztuaren 31 arte (Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil, Zarautz, Altza, Lugaritz...).

Merkatarientzat ikastaroak

Eusko Jaurlaritzak "Merkataritzarako Plan Informatikoa" jarri du martxan. Plan honen eskutik, herriko merkatariek (autonomoek) hainbat ikastaro egiteko aukera izango dute. Ikastaro hauetan izena emateko doako telefono batera deitu behar da: 900 500 900.

Udal liburutegia ere, itxita

Uztailaren 29tik abuztuaren 29ra itxita egongo da udal liburutegia.

Araudi eta ordenantza berriak, jendaurrean

Ekainaren 10ean egindako bilkuran, Usurbilgo udalbatza plenoak araudi bat eta udal ordenantza bat onartu zituen hasieraz. Araudia, udal intereseko irabazi-asmorik gabeko elkarteak erregistratzeari buruzkoa da.

Udal ordenantzak, berriz, Usurbilgo Udalaren dirulaguntzak arautzeko xedea du.

Erabakia jada GAOn argitaratua izan da eta erreklamazioak edo iradokizunak aurkezteko epea uztailaren 21ean amaitzen zela esan genuen arren, epea uztailaren 28an amaituko da.

Gai honi lotuta, Usurbilgo Udalak hitzarmena adostu du AEK udal euskaltegiarekin zein Zumarte Musika Eskolarekin.

UHLk alegazioak egin ditu

Udalbatzak behin-behingo onartutako diru-laguntzen ordenantzari eta udal-erregistroa osatzeko erabakiari buruz ondoko alegazioak egin ditu UHLk.

UHLren iritziz, *"elkarte eta taldeei ezartzen zaizkien betebeharrak ugarirekin, herri-dinamika eta ekimenak sustatu ordez, oztopo bilakatzen den tresna dela deritzogu"*.

Aldaketa hauek proposatu dituzte:

1. Udal erregistroa osatzeko Eusko Jaurlaritzakoan egoteko betebeharrak ezabatzea. Nahikoa litzatekeela Udalak berak herriko talde eta elkarten zerrenda ofizialki osatzea talde horiei dokumentu minimoak eskatuz eta dokumentu horiek egiteko orduan udal-zerbitzuen laguntza eskainiz.

2. Diru-laguntzen banaketa erabakitzerakoan eta banatutakoaren kontrola egiteko garaian, elkarte eta taldeen barne autonomia eta intimitatea errespetatzea.

Azkenik, UHLk uste du arautegia konplexuegia dela eta zenbait atal era xumeagoan jasotzeko aukera badagoela.

Kale Nagusia berritzeko asmoa aurrera doa

Kale Nagusia eta Eguzkitza auzoa berritzeko urrats berriak eman dira. Obra gauzatzeko lehiaketaren baldintzak argitaratu berri dira. Milioi bateko aurrekontua izango du lan honek.

Uztailaren amaierarte jendaurrean izango da Aritzetako autopista sei karriletara zabaltzeko proiektua

Gipuzkoako Foru Aldundiak sei karriletara zabaltzeko proiektua onartu du. Orio eta Aritzeta arteko eremuari eragiten dio proiektu honek. Orion, gainera, lotune bat egin nahi du

Foru Aldundiak.

Proiektu hau jendaurrean da, ikusgai, uztaila bukaera arte, Foru Aldundiko Bide eta Azpiegituretarako Departamenduan eta Usurbilgo Udaletxean.

36ko Gerra Zibilaren azken lekukoak

1 936ko Gerra Zibila uztailearen 18an hasi zen. Historiak dioenez, ordea, Usurbila beranduxego iritsi ziren gerra hotsak, 1936ko irailaren 17an. Iruretagoiena koronelaren tropak Mendizorrotzetik barrena gure artera iritsi zirenean, hain zuzen. Frankistak sartu zirenean, herritar batzuk espetxeratuak izan ziren. Besteak, desterratuak; eta ihes egindakoak ere izan ziren. Gazte batzuk, ordea, Errepublikaren aldeko frontean murgildu ziren. Gaur egun, bi dira Errepublikaren alde borrokan aritu eta gero bizirik dauden gudariak: Manuel Goenaga eta Antonio Aranburu. Manuel Goenagaren hitzekin eta Antonioren seme den Manu Aranburuk ekarritako idatzi eta irudiekin osatu dugu honako erreportajea.

NOAUA! Errepublikaren aldekoekin bat egin zenuen. Nola osatu zen zuen taldea?

Manuel Goenaga. Errepublikanoek koartela jarri zuten Zarautzen. Hara joan ginen, bertan gaua egin eta hurrengo goizean Azpeitiara joateko boluntarioak behar zirela eta konpainia preparamu behar zela.

Kosme Yaguezek (Zubietakoa, EAJko kidea) zera esan zuen: *bertan geratzeari pentsatu diagu.*

Bertan geratu? Esan nion.

Ez omen dute ezer egiten, Kosmek.

Usurbilen geratu behar genuen, ez hemen bota nion. Ni aurrera joango naiz libre dagoen artean.

Irurako batek galdetu zidan: *zer egin behar duzue?*

Batzuk aurrera eta besteak etxera, ez omen dutela ezer egiten.

Eta Irurakoak esan zidan: *Asteasun ere hori esaten zuten, orain han zeudek sei edo zazpi, arto artean enterratuta. Usurbilen ere egingo ditek.*

Bai egin ere (Kosme Yaguez Orioko mendate inguruan fusilatu zuten, 1936ko urriaren 10ean).

N. Ze gudarostean ibili zinen?

M. G. Ni Gipuzkoa batailoian ibili nintzen. Komunistak ziren dirigenteak baina Errepublikaren aldekoak.



DUELA EZ HAINBESTE, MANU ARANBURUK (ANTONIOREN SEMEAK) ATERATAKO ERRETRATUAN AGERI DIRA MANUEL GOENAGA (IRUDIAN, EZKERRETARA) ETA ANTONIO ARANBURU (IRUDIAN, ESKUBIKOA).

N. Usurbildik abiatu eta Avilesen (Asturias) bukatu zenuen preso. Asturiasen asko erori ziren, ezta?

M. G. Bastante. Usurbilgoak ere. Bi badira hilak: Inaxio Arruti, Ibarrolakoa; eta Blas Ugarte, Egiluzekoa.

Atrakatu genuen, abiatu ginen goitik behera autobusean eta (frankisten) frontetik tiki-taka balazoka gure autobusari. Artoan barrena korrika hasi ginen. Errioa zegoen, zubia pasa eta San Esteban bezalako kasko bat ikusi eta hura hartzera abiatu ginen. Batzuk "a puro pecho", behetik gora. Besteak, parapetatzen. Munizioa eskatu eta eskatu baina munizioarekin zihoazten biak erituak zeuden. Kamilerok ere, gehienak erituak eta kamilarik ez. Ugarte hau guk jeitsi genuen eritua behera. Ura eskatu eta eskatu ari zen. Gutako inork kantinplorik ez. Erreka bazegoen aldamentean baina handik ura ekarri behar. Ura ekartzeko ezertxo ere ez genuen eta matxetearen funda garbitu eta horrela ekarri genion ura. Anbulantziak eraman zuten. Gero jakin genuen Avilesen hil zirela Blas Ugarte eta Inazio Arruti.

N. Nola erori zen zuen batailoia?

M. G. Itsasoan. Altoa bota ziguten eta akabo. Avilesen ihes egiteko barkua

hartu baina altamarrean preso hartu eta Cudillerora eraman gintuzten. Gu bezala errezibitutako prisionerorik Espainia osoan ez da izango besterik. Musika banda eta guzti. Barkutik atera, eta musika bandarekin departamendu batera gaua egitera eraman gintuzten. Kale buelta batean, emakume motz bat, guregana arrimatu zen eta "Biba Rusia!" oihukatu zigun.

N. Ze kargua zenuen batailoian?

M. G. Ni sargentoa nintzen. Metrailleta eta pistola ibiltzen nituen. Laredo komandantearen bizkartzaina nintzen. Gero fusilatu egin zuten. Hura nora joan, ni beti hara joan behar izaten nuen berarekin.

N. Komandantea gogorra al zen?

M. G. Ez. "De tu a tu" beti berarekin. Bilboko Firestone ondoan harrapatu zuten preso. Eta fusilatu egin zuten. Gu baino lehen erori zen. Geroztik, Santander guztia eta Asturiasko parteak galdu genituen beste komandante batekin.

N. Zu eta Antonio zarete bizirik dauden azken bi gudariak.

M. G. Nik dakidala ez da bizirik dagoen beste gudaririk Usurbilen.

Preso hartu eta “Batallón de Trabajadoresen” lan egitera behartu zuten Manuel Goenaga

Preso erortzean, errepublikazale batzuk fusilatutako izan ziren. Beste batzuk, ordea, “Batallón de Trabajadores” delakoan lan egitera behartu zituzten. Galtzaileentzako zigorra zen. Manuel Goenaga, gerra galdu zuten asko bezalaxe, batailoi horietan lan egitera behartua izan zen.

Manuel Goenaga atxilotu zutenean, lehen egunak Santoñan egin zituen. “Han, oso gaizki ibiltzen ginen urarekin. Handik Mirandako “campo de concentración”-era eramán gintuzten eta ez nintzen ondo sentitzen. Lehenago, Santoñara, beste espedizio bat eramán zuten. Irundar bat hankutsik zegoen. Nik bi bota pare nituen eta esan nion, tori, har itzazu bota hauek. ‘Bai, eta nola ordainduko dizkizut?’ galdetu zidan irundarrak. Egunen batean horretarako aukera baduzu ondo, bestela lasai egon, erantzun nion”.

Faborea azkar jaso zuen gure protagonistak. Zorionekoa Manuel Goenaga. Mirandara eramán zutenean, irundar hura mendikuaren laguntzaile jarria zuten. Eta irundarrak Manuel ezagutu. Fabore itzultzeko ordua zen. Hurrengo egunean, preso denek errekonozimendua zuten. Manuel medikuarengana jo eta ‘zu al zara Manuel Goenaga? Txoko honetan geratu. Zuri hobeto begiratuko dizut’.

Gerran pasatakoak pasa eta gero, eta Santoñan urarekin izandako arazoekin, Mirandan beste itxura bat zuen Manuelek. Pentsa ze aldatua zegoen, aita bisitan joan zitzaionean ez zuela semea ezagutu.

“Tienda de campañatan’ ginen. Aita bisitatzerá etorri eta bi lagun gunden. Dendan sartu eta galdetu zuen: ‘bietatik

zein da nere semea?’ Ez nauk ezagutzen aita? Esan nion. Niregana hurbildu eta negarrari eman zion aitak”.

“Fiebres tifoideas” delako gaitza zuen Manuelek. “Orduan konturatu nintzen bezurrak nola diren gorputzean. Hilabetez, kafesnea besterik ez nuen hartzen. Hainbeste suerteko gizona izan naiz. Han ere, moja batek bihotzeko hartu ninduen, kariño handiz tratatu ninduen. Kafesnearekin etortzen zen eta niri ematen zidan lehenik. Eta bueltan, berriz osterá niri. Niri bi bider ematen zidan”.

Gero sendatu zenean, “Batallón de Trabajadoresera” eramán zuten, Guadalajarara.

Guadalajaratik Kataluniako Malgrat herrira eramán zituzten. “Gure lana egurrá sukalderako ekartzea zen. Goizean hondartzara joaten ginen, arratsaldean ere berdin”.

“Batallón de Trabajadores” delakoan denbora batean aritu eta gero, aske utzi eta Usurbila itzuli zen. Berehala Luzuriaganean hasi zen lanean. Dena bukatu zela uste zuen arren, lanean hasi eta gutxira ofizinara deitu zuten Manuel. Gerra amaitua zen baina Manuelentzat ordea ez: “Trabajadore bezala ez genuela denbora osoa kompletatu eta Mirandara joateko agindua genuen”. Berriz ere Mirandan izan zen eta handik Palma de Mallorcara, porlanazko fortinak egitera: “Ondo tratatu gintuzten. Jana ondo ematen ziguten. Goizean diana genuen, goizeko 7:30etan. Hura jo orduko pikua bazen bistara. Aurrena hori bildu eta gero gosaldú. Gosaldú eta lanera abiatzen ginen. Urarekin emateko partez, ardoarekin ematen genuen botijoa. Lanean hasi eta 11:45ean alto. Hondartzan bainua hartu eta bazkaltzera. Pinudietan siesta



MANUEL GOENAGA, “BATALLÓN DE TRABAJADORES” LANEAN. (GOIAN, EZKERRETIK HASITA, BIGARRENA DA MANUEL).

egin eta 15:00etan berriz ere lanera. 16:45ean, alto berriz ere”.

Komentua zuten aldamenean. Egun batean hondartzara joan eta haiek ere igeri egitera joanak ziren. “Gu ikustean, korrika denak konbentura!”, adierazi digu parrez Manuelek.

Ondo zeuden baina oso bigilatuak zeuden. Uneoro, gainean zituzten eskoltak euren fusilekin.

Palmatik Asturias aldera eramán zuten, bertako aireportu bat egitera. Lugo de Llanerakoa hain zuten.

1942an, bigarrenez etxera itzuli zenean, amaitu zen gerra Manuelentzat.

Minak nor jaso?

Franco jada indarrean zen. Boluntarioak eskatu zituzten gerrako minak ateratzeko. Manuelek, artean “Batallón de Trabajadoresen”, ondo gogoan ditu egun horiek: “asturiar sargento batek, falangista, “ez apuntatu inor” esaten zigun. Gerra egin eta gero, oráin ez duzue bizitza mina batekin galduko. Jarri duenak kendu dezala. Maisua zen, asturiar sargento hura. Ez ginen inor apuntatu”.

LAUKOTE
OKINDEGIA
KAFETE GIA
Muntapax kalax. 16 behea
(Artzabal): 945 26 09 80

JUANTXO
BURDINDEGIA
KALE MAGUSTA 10
943 370 000

LATAILLADE
ITURGINTZA
GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALARUNTZAK
Aristitxko 8, behea - 943 363 348 - 609 888 021

Gernikako bonbardaketan, Otxandianon zen Goenaga


Gogorra izan zen gerra. Batzuk, borondatez, errepublikazaleen frontearekin bat egin zuten. Beste batzuk, halabeharrez, Francoren alde egitera behartu zituzten. Manuel Goenaga eta beste anaia bat, errepublikarrekin aritu ziren borrokan. Baina beste bi anaia, ordea, armada frankistarekin borrokatzera eramane zituzten.

NOAUA! Zergatik galdu zenuten gerra?

Manuel Goenaga. Guk ez genuen mandorik. Materialik ere ez. Kanoiak bai, nahikoak genituen. Abioia bakarra,

ordea. Kaza txiki bat. Moska deitzen ziotena. Frankistek, ordea, abioi asko zituzten. Nik arratsalde batean 72 abioi kontatu nituen Bizkaiko frontean nintzela.

Behin, hilko nintzela pentsatu nuen. Bakarrik ez ibiltzeko agindua genuen. Baina bakarrik nengoen mendian. Aldapa handia zegoen. Azken muturrean nintzen eta abioi bat azaldu zen. Ni ikusi eta bonba askatu zuen, 200 kilokoa gutxienez. "Hemen nire azkena", pentsatu nuen. Nire ondotik sei bat metrora pasa zen bonba hori, haize soinu batekin... 10 metro aurrerago, haritz bat bota zuen aidean, zainetatik aterata. Niri ez zitzaidan ezer gertatu.



N. Bizkaian ere borrokatu zenuen. Gernikakoa gogoan al duzu?

M. G. Noski. Ni Otxandianon nengoen Gernika bonbardatu zutenean. Handik ikusi nituen abioi alemanak pasatzen. Haiek bonbardeatzen hasten zirenean aguantatu egin behar zen!

"Lehen, kantari eta txistuka ibiltzen zen jendea"

Duela ez hainbeste, bestelakoa zen kaleko giroa. Manuel Goenagak adierazi digunez, "jendea kantari eta txistuka ibiltzen zen kalean. Orain ez du inork kantatzen, ez du inork txisturik jotzen. Ez dut inor sentitzen".

Manuelek dioenez, jeltzaleek edo nazionalistek hau kantatzen zuten: "Gora Euskadi, bizi bedi Jaungoikoa ta Lege Zarra, España Españarentzat, Euskadi guretzat". "Eusko Gudariak gara" zen asko abesten zen beste kanta bat. Sozialistak eta komunistak, berriz, Internazionala abesten zutela adierazi digu Manuel Goenagak.

Dantzan ere askotan aritzen ziren, ia gehienetan esku soinuaren erritmoan. "Sueltoan, a lo agarrau...", era askotako dantzak ditu gogoan Manuel Goenagak. Gure protagonista, ordea, ez zen dantzan aritzen. "Nik behin ere ez dut dantzan egin. Behin ere ez zitzaidan okurritu egin behar nuenik eta ez nuen ikasi. Nik semeei esaten nien: 'bi gauza ikasi behar dituzue. Bat dantzan egin eta bestea igeri egiten ikasi'", aitortu digu Manuelek.

Astelehenez ezkondu zen

Gerra Zibila 1939an amaitu zen. Manuelentzat, aldiz, 1942an. "Batallón de Trabajadores" delakotik aske utzi zutene-



EGILUZKO BLAS UGARTE TRIKITILARIA ASTURIASEN HIL ZEN, ERREPUBLIKAREN ALDEKO FRONTEAN.

an. Orduan bukatu ziren gerrako kalamidadeak Manuelentzat. Lanean hasi eta handik gutxira ezkondu zen: "13 de enero del 45. Astelehenez ezkondu ginen. Larunbatetan eta igandetan 'plato único' izaten zen. Ez zen bi platerik zerbitzerik. Asteaz zehar, libre. Baina larunbatean ezkontzen baginen, 'plato único' egin behar genuen. 'Plato único' ez egiteagatik astelehenez ezkondu ginen".

Gerra aurretik ezagutzen zuen bere emaztea izango zena. "Lehenagotik ezagutzen nuen baina bikote bezala gerra eta gero hasi ginen. Suerte izugarria izan nuen. Andre ona tokatzea. Oso ona izan dut andrea. Bizitzeko laguntzeko elkarri", adierazi digu Manuelek. Kale Nagusian bizi dira. Adinak barkatzen ez duen arren, sasoi eta umore onean.

Gerra ondoren, gorrotorik ez herrian

NOAUA! Gerra ondoren, gerraz hitz egiten al zen herrian?

Manuel Goenaga. Ez, pasatako kontuak ziren. Konbertsazioa tokatzen bazen bai. Baina bi aldeetan ibilitakoak juntatzen ginen. Hala ere, gerrarengatik ez zen gorrotorik. Ni hona etorri nintzenean alkateak, ez dakit falangista edo zer izango zen, Luzuriagara bidali ninduen lan egitera. Nik Michelinen nahi nuen baina ez zen nahikoa lanik orduan eta Luzuriagan hasi nintzen. Lanean hasi eta handik gutxira, ordea, "Batallón de Trabajadores" bueltatu behar izan zuen berriz ere. Ez nuela denbora guztia kunplitu eta falta zena osatzera joan behar nuela. Ez zegoen esaterik ezetz. Beste 23 hilabete gehiago egin nituen *trabajadores*etan. Handik bueltan, 1942an, Michelinen hasi nintzen lanean. 40 bat urte egingo nituen Michelinen. 60 urterekin borondatezko jubilaria hartu nuen arte.

N. Oraindik sasoi onean izango zinen.

M. G. Bai, baina gure etxea denda zen. Andreak eramaten zuen denda, eta nik ikaztegia nuen beste mutil batekin, Oxtapeko sarrera aurrean.

Errepublikatik diktadura luze batera

1931ko hauteskundeetan Herri Fronteak irabazi eta horrela abiatu zen Espainiako Bigarren Errepublika. Hego Euskal Herriko lau probintziek Lizarrako Autonomi Estatutuaren proiektua onartu zuten; baina, Espainiako Gorteek ez zuten onartu. Errepublikan indarrean zegoen gobernu ezkertiarren kontra Francok altxamendu militarra hasi zuen 1936ko uztailaren 18an. Aurretik eskuindarrek, Jose Antonio Primo de Riveraren eskutik, desestabilizazio kanpaina egin zuten Espainian. Gerra zibilean, guztira, 600.000 hildako izan ziren. Francoren jarraitzaileek errepublikarrak garaitu zituzten Italiako eta Alemaniako gobernuen laguntzaz. 1939ko urtarrilean



FRANCOREN ALDE BARROKATU ZUTEN REKETEEK, NAFARROAKO TALDE MILITAR KARLISTAK

Francoren armadak Bartzelona hartu eta Alacanten zegoen Errepublikako gobernuak Frantziara alde egin behar izan zuen. Martxoan Madril hartu ondoren, gerra amaitu eta Francoren diktadura hasi zen.

Frankistak iristean, Usurbildik alde egin zuten herritarrak

Joxe Aburuza, Txulonekoa
Manuel Aburuza, Usaskukoa
Kaximiro Aginaga, Ilunbekoa
Anttonio Aranburu, "Antonio Pello"
Juanito Aranburu, pilotaria bere lau alabekin
Juanito Arriaga, Motzanekoa
Luziano Arriaga, Motzanekoa
Inaxio Arruti, Ibarrolakoa
Juanito Arruti, Ibarrolakoa
Felipe Aierbe, mikeletoa
Julian Belgoetxea, Eloorkoa
Modesto Bereziartua, Urruzmendikoa
Eleuterio Errasti, Etxeberri Zaharrekoa
Jesus Errasti, Erraztikoa
Juan Mari Errasti, Erraztikoa
Julian Errasti, Erraztikoa
Baleriano Galarmendi, Kaxkonekoa
Erramun Galarmendi, Kaxkonekoa
Josepa Galarmendi, Kaxkonekoa
Bixente Galdona, Kaxtorrenekoa
Txomin Garitazelaya, Katapazanekoa
Manuel Goenaga, Olarrikoa

Tiburtzio Goenaga, Olarrikoa
Txomin Iburguren, Saizarkoa
Agustin Illaramendi, Ezpaldiberrikoa
Eusebio Illaramendi, Ezpaldiberrikoa
Lukax Illaramendi, Ximonekoa
Inaxio Intxausti, Xantuxenekoa
Luis Irigorri, Urruzmendin apopilo
Jose Migel Irastorza, Potxonekoa
Joxe Antonio Labaka, Santueneko morroia
Raimundo Lizarralde, Izoztegiakoa
Joxe Mari Martija, Ezkerrenekoa
Andres Martinez, "Guardagujasen" semea
Praxku Mujika, Zapatarinekora bere familiarekin
Antonio Rezola, Txikiardikoa Zapatarikoa
Erramun Rezola, Babilonikoa
Xanti Rezola, Babilonikoa
Roke Tolaretxipi, Zubietakoa
Blax Ugarte, Egiluzekoa
Juan Inazio Unanue, Agerreazpikoa
Joxe Migel Uranga, Txikiardikoa
Martin Uranga, Txikiardikoa
Anttonio Zapiain, Lartzandietakoa

Datu hauek "Herriak badaki, Usurbilgo memoria errepresiboa" liburutik hartuak (NOAUA!-Etxerat, 2002)

Gerra Zibilean Fusilatutakoak

Joxe Mari Furundarena Begiristain
Aginagako Eizakoa, 21 urte.
Tolosan, 1936ko urriaren 3an.

Juan Bautista Aginaga Otegi
Gaztainagakoa. Meagasen fusilatu
zuten, 1936ko urriaren 10ean.

Kosme Yaguez
Zubietakoa. Orio inguruan fusilatu
zuten, 1936ko urriaren 10ean.

Patxi Aizpurua
Urdaigako Zabalekoa. Orio inguruan
fusilatua, 1936ko urriaren 10ean.

Joxe Galarmendi
Kaxkoenekoa. Zizurkilen, 1936ko azaro-
aren 2an.

Errepublikaren aldeko Frontean hildakoak

-Inaxio Arruti, Ibarrolakoa
Asturiasen, 1936an

-Blax Ugarte, Egiluzekoa
Asturiasen, 1936an

-Andres Martinez,
Ibidean (Bizkaia), 1937an

-Eusebio Illaramendi,
Otxandianon, 1937an

-Baleriano Galarmendi, Kaxkoenekoa
Otxandianon, 1937an

-Erramun Galarmendi, Kaxkoenekoa
Otxandianon, 1937an

-Joxe Miguel Uranga, Txikiardikoa
Otxandianon, 1937an

-Kaximiro Aginaga, Ilunbekoa
Artxandan, 1937an

**PATRI
JATETXEA**

943 362 725

Kalkos kopisteria

FOTOKOPIAK
zuri-beltza · koloretan

BANDERA
SALMENTA

PINTORE KALCA 7 · LASARTE ORIA

943 370 424 · 943 370 122 FAX kalkos@kopisteriakalkos.com

**IGELTSE ITZ
t
INTU**

94 12 11 7 8 8 55
2 1 08 27 3

Euskal Txokoetako azken argazkia ote?

Euskal Txokoetako argazkia duzue hauxe. Baina ez da argazki soil bat. Ez da gure artxiborako jaso dugun irudi bat gehiago. Euskal Txokoetako azken argazkia da. Ekaineko azken saioko erretratua. Aldaketarik ez bada, nekez errepikatuko dena. Irudi honek, Euskal Txokoetaz hausnartzeko bidea eman digu.

1996ko ekainean hasi zen dena. Garai hartan, udaletxean hainbat aholku batzar zeuden, tartean, Euskararen Aholku Batzarra. Izenak dioen bezala, euskararekin zerikusia zuten taldeek eta erakundeek hartzen zuten parte. Udarregi Ikastola, Santueneko Haur Eskola eta Ageri Alde Ikastetxea (azken biak, jada ez daude martxan) ondorio honetara iritsi ziren: badira euskaraz hitz egiteko zailtasunak dituzten haurrak (bereziki, giro erdaldunean bizi diren gaztetxoak).

Diagnostiko horren ondotik iritsi ziren helburuak: euskaraz jarduteko premia dutenei aukerak eman behar zaizkie. Bide batez, haur eta gazteei aisialdi-garaian euskaraz bizi eta gozatzeko aukera eskaini beharko litzazieke.

1996tik hona, helburu horiek asetzeko sustatu dira Euskal Txokoak. Ikastetxeek proposatu eta Udalak finantzatu duen zerbitzua.

Iazko urria arte, haur horien gurasoentzat zerbitzua doanekoa zen. Azken ikasturtean, ordea, gurasoak kuota bat ordaintzen hasi behar izan dute. Eta hau muga bat izan da guraso askorentzat.

Pentsa, iaz, 58tik 10era murriztu zen Euskal Txokoetako haur kopurua. Nahiz eta bakarra ez izan, diruan egon daiteke jeitsieraren faktoreetako bat. Baina ordaindu ezinik dauden gurasoen diruaz ari gara? Hala murriztu egin den diru-partida publikoaz ari gara?

Kuantitatiboki neurtzen hasita, egia da orain arte Udalak egin duen ahalegina handia izan dela. Ados. Baina, aldi berean, haurren premia asetu nahi duten gurasoei ahalegina handia egitea eskatu zaie.

Honi lotuta, gauzak neurri ezberdinekin neurtzen direla esan daiteke. Euskaltegian, esate baterako, guraso diren ikasleak doan ikasteko aukera



EUSKAL TXOKOETAKO AZKEN EGUNEKO IRUDIA DUZUE HAUXE.

dute. Euskara planak martxan dauden enpresetan erraztasunak eta laguntzak handiak dira. Baita administrazioan ere (kasu askotan, musu-truk).

Kualitatiboki neurtu dezagun. Jaioberrien kopurua igo egin da azken hiru urteotan. Baita gure artean bizitzera etorri diren bizilagun berrien kopurua ere. Iaz, 77 haur ziren Euskal Txokoan beharra zutenak. Ez da boteprontoan emandako datua. Udarregi Ikastolak berak emandako datua da. Baina matrikulatuak 10 izan ziren. Beraz, beste 67ak, premia izanik, ez dira Euskal Txokoan zerbitzuaz baliatu. Beraz, hankaz gora dira Euskal Txokoan helburuak: 67 haur euskaraz hitz egiteko zailtasunak dituzte eta ez zaie euskaraz jarduteko aukerarik eskaini.

Ez gara 1996an bizi. Orduetik hona, gauzak aldatu egin dira. Akaso Euskal Txokoan formula birplanteatu egin beharko litzateke. Zerbitzuaren beraren kudeaketa-sistema ere.

Denbora honetan guztian, haur multzo jakin bati eskainitako zerbitzua baino, haur denei irekitako zerbitzua eskaini beharko litzatekeela esan izan da. Ludotekaz hitz egin da.

Ludotekak Euskal Txokoan beharra asetu eta beste helburu gehiago bete ditzake: haur denentzat aterpe bat ziurtatu (bereziki, neguan), aisialdian euskaraz aritzeko gunea eraiki... Eta beharrak dituztenei, zerbitzu orokor horren bai-

tan eskaintza jakin bat egin.

Aukera honek, gainera, batzuk eta besteak integratzeko egokia izan daiteke.

Ludotekarena egitasmo baliogarri bat izan daiteke. Baina epe laburrera behintzat, ez da ludotekarik edo antzekorik aurreikusi. Beraz, Euskal Txokoena da gaur egun dugun aukera bakarra. Euskalduntzea, euskararen normalizazioa, euskara planak eta horrelakoak hitz hutsak ez direla uste badugu behintzat.

Bestelako balizko egitasmoak hezur-mamitu bitartean, egunerokotasunari heldu behar zaio. Urria gainean da. 2005/2006 ikasturtea laster hasiko da. Gauzak asko aldatzen ez badira behintzat, ez da ludoteka edo antzekorik izango (udal aurrekontuetan ez da jaso). Eta gauzak asko aldatzen ez badira, ikasturte hasieran ez da Euskal Txokorik izango. Premiak, ordea, ezin dira asetu gabe utzi; aurreragorako utzi. Azken bederatzirteotako lana alperrikakoa izan baino lehen, konponbide batean pentsatzeko unea izan daiteke. Mahai batean bildu eta arrazoizko irtenbide bat lortzeko garaia da.

“Inoiz ez da berandu” dio Aitor Badiolaren kantutik. Doinu horrek alaitu ditzala Euskal Txokoan premia duten haurren belarriak.

NOAUA!ko lehiaketak irailan jarraituko du

Noaua!ri oporrak hartzeko garaia iritsi zaio eta beraz, irailan lehiaketarekin jarraituko dugu, sari zoragarriak zozketatuz.

209. lehiaketako erantzuna:
Nork piztu zuen aurtengo Santixabel jaietako itxaferoa?
AMAIA ZUBIRIA

Irabazlea **ERROMAN MANTEROLA** izan da. Jaso ezazu saria Noaua!ko egoitzan. **ZORIONAK!**

NOAUA!ko ARGAZKI LEHIAKETA

Noaua!k Santixabel jaietan argazkiak ateratzen ibili zaretenoi lehiaketa honetan parte hartzeko sukera paregabea eskeini dizue.

Jaso diren argazkien artean irabazlea hauxe izan da: **JOSEBA PELLEJERO**
Atxega Jauregiko jatetxean bi lagunentzako afaria irabazi duzu. **ZORIONAK JOSEBA!!**

Hona hemen irabazlearen argazkia:



Xabier Aranburu, Santixabel Bertso-Paper Lehiaketako irabazlea

1) Atun arrantzan daramat ia arratsa osoa bizkor poturatzea da nire hurrengo pausoa orain arte egon arren eguraldi txit jasoa zelatan dagon enbatak ez du aurpegi gozoa berandu ikusi diot amarruaren lazoa bat batean lehertu da izugarritzko eraso euri ta haize zakarrez astindurik itsasoa inferru bat bilakatuz lehen zen paradisoa

2) Hil edo bizikoa da aurrean dudan burruka eta izuak akabatzen nagoela ezin uka herio suharrak jota bihotza arnas-estuka ekaitz zital alaenak paralizaturik nauka itsasoaren ahoan txaluparekin zabuka lau metroko olatuen atzaparretan bihurka ura edonondik sartzen da hondoratzeaz txalupa intxaurren oskol bat bezala kolpetik gaitu zurrupa

3) Ziplo hondoratu gaitu itsas handiaren bortxak ta segunduak ez dira batere egiten motzak dantza makabro hontan ai, zenbat trago mingotsak itolarriaren suak laster kentzen ditu hotzak ur-azalera etorrita arnasa hartze zorrotzak indarrak eskuratuta tinko erakusteko hortzak bizitzaren hariari helduta buru-bihotzak alferrik jarraitu dezan ate-joka heriotzak

4) Ekaitzaren haserreak azkenean jo du muga gorriak ikusi ditut asto beltzaren modura gutxi falta izan zaio bidal nintzan infernura baina baretzen joan da negua bihurtuz uda une horretan askatu zaidan barrango estura sentimentuen eltzean negar batean hustu da begirada zuzendurik urdindutako zerura horretxek ekarri baitit itxaropena eskura

5) Txalupari atxikirik itsasoaren esklabo gauak bere dihal beltza zabaldu du emaro zeru izartsuari so animatu naiz zeharo ilargiari bertsoak errezitatuz oparo baina ahuldadea lagun ezin segitu luzaro gorputza nekatu-rik-ta burua nekatuago etengabeko kulunkan lo hartu ez hartu nago hala gertatuko balitz orduantxe bai, akabo!

6) Itsasoaren sehaskan batera eta bestera noraezen dabilen erromesaren antzera pentsamenduak doazkit behin da berriro etxera abisurik eman gabe etorri banaiz honera axolagabekeriak horra nolako galera damuaren aginkadez nire bihotza bete da amorrazioak ez dit irauliko egoera aurreik behar nituen kontuak garbi atera

7) Trapu zahar bat dirudit hainbeste ordu jitoan burua altxa ezinik a ze trantzean nagoan ur gaziz inguratirik egarriak iz itoan mingaina ezpartu lehor aparra ezpain ondoan hotza hezurretaraino sarturik dut luzaroan hipotermiaren hara hozkaka erraien hondoan gorputza gogorturikan obsesio bat kolkoan: nire bila etorri ote dirade behingoan.

8) Jotake ariko dira bilaketan beharbada baina argirik ez dator bandututako bistara justu-justu entzunten dut itsasoaren marmara zeinak ezabatzen duen esperantzaren uhara etsipenaren zuloan ilunago zait gaba azkenetan nagoela pentsatzeari ezin laga taupada hits lotsatiaz bihotza joka aldaba larru bizian dagoen agoniaren balada

Udako autobus ordutegia Donostia-Zarautz

Donostia	Urbil	Usurbil	Zarautz	Donostia	Urbil	Usurbil	Zarautz
07.40		08.05	08.25	15.00	15.20	15.25	15.45
08.00		08.25**		15.40		16.05	16.25
08.00	08.20	08.25	08.45	16.00	16.20	16.25	16.45
08.40		09.05	09.25	16.40		17.05	17.25
09.00	09.20	09.30		17.00	17.20	17.25	17.45
09.00	09.20	09.25	09.45	17.40		18.05	18.25
09.40		10.05	10.25	18.00	18.20	18.30	
10.00	10.20	10.25	10.45	18.00	18.20	18.25	18.45
10.40		11.05	11.25	18.40		19.05	19.25
11.00	11.20	11.25	11.45	19.00	19.20	19.25**	
11.40		12.05	12.25	19.00	19.20	19.25	19.45
12.00	12.20	12.25**		19.40		20.05	20.25
12.00	12.20	12.25	12.45	20.15	20.35	20.40	21.00
12.40		13.05	13.25	20.00	20.20	20.25	20.45#
13.00	13.20	13.30		21.00	21.20	21.25	21.45
13.00	13.20	13.25	13.45 #	21.00	21.20	21.25	21.45
13.40		14.05	14.25	21.15	22.35	22.45	23.05
14.00	14.20	14.30**		22.00	22.20	22.25	22.45
14.00	14.20	14.25	14.45	22.30	22.50	23.55	23.15
14.40		15.05	15.25	00.00		00.25	00.45
15.00	15.20	15.30		01.00		01.25	01.45
				02.00		02.25	02.45
				04.00		04.25	04.45
				05.00		05.25	05.45
				06.00		06.25	06.45

■ Soilik larunbata gauz # Larunbatetan, Orion autobus aldaketa Aiara
 □ Larunbat lanegunetan ■ Asteburutan, jaietan **Aiaraino

Udako autobus ordutegia Zarautz-Donostia

Zarautz	Usurbil	Urbil	Donostia	Zarautz	Usurbil	Urbil	Donostia
06.45	07.05		07.30		14.30	14.35	15.00
06.45	07.05	07.10	07.30	14.45	15.05		15.30
07.15	07.35		08.00	14.45	15.05	15.15	15.40
07.45	08.05		08.30		15.30	15.35	15.55*
07.45	08.05	08.15	08.40	15.45	16.05		16.30
08.15	08.35		09.00	15.45	16.05	16.15	16.40
08.45	09.05		09.30	16.45	17.05		17.30
08.45	09.05	09.15	09.40	16.45	17.05	17.15	17.40
	09.30	09.35	10.00*	17.45	18.05		18.30
09.45	10.05		10.30	17.45	18.05	18.15	18.40
09.45	10.05	10.15	10.40	18.45	19.05		19.30
	10.30	10.35	11.00	18.45	19.05	19.15	19.40
10.45	11.05		11.30		19.30	19.35	20.00
10.45	11.05	11.15	11.40	19.45	20.05		20.30
11.45	12.05		12.30	19.45	20.05	20.15	20.40
11.45	12.05	12.15	12.40	20.45	21.05		21.30
12.45	13.05		13.30	20.45	21.05	21.15	21.40
12.45	13.05	13.15	13.40	21.15	21.35	21.40	22.00
	13.30	13.35	13.55*	21.45	22.05	22.15	22.40
13.45	14.05		14.30	23.15	23.35		00.00
13.45	14.05	14.15	14.40	00.15	00.35		01.00
				01.15	01.35		02.00
				02.15	02.35		03.00
				04.15	04.35		05.00
				05.15	05.35		06.00

*Aiatik dator ■ Asteburutan, jaietan
 □ Larunbat lanegunetan
 ■ Soilik larunbata gauz

Udako tren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47*	06.03*	06.20*	06.08*	06.24*	06.39*
06.17*	06.33*	06.50*	06.38*	06.54*	07.09*
06.47*	07.03*	07.20*	07.08*	07.24*	07.39*
07.17	07.33	07.50	07.38*	07.54*	08.09*
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17	08.33	08.50	08.38*	08.54*	09.09*
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09.52#	-	10.21#	10.05	10.24	10.39
10.17	10.33	10.50	11.08	11.24	11.39
10.47	11.03	11.22	11.22#	-	11.47#
11.17	12.03	12.20	12.08	12.24	12.39
12.17*	12.33*	12.50*	12.38	12.54	13.09
12.47	13.03	13.20	13.08	13.24	13.39
13.17*	13.33*	13.50*	13.38*	13.54*	14.09*
13.47	14.03	14.20	14.08	14.24	14.39
14.17*	14.33*	14.50*	14.38*	14.54*	15.09*
14.47	15.03	15.20	15.08	15.24	15.39
15.17	15.33	15.50	15.38	15.54	16.09
15.47	16.03	16.20	16.08	16.24	16.39
16.17	16.33	16.50	16.38	16.54	17.09
16.47	17.03	17.20	17.08	17.24	17.39
17.17	17.33	17.50	17.38	17.54	18.09
17.47	18.03	18.20	18.08	18.24	18.39
18.17	18.33	18.50	18.38	18.54	19.09
18.47	19.03	19.20	19.08	19.24	19.39
19.17	19.33	19.50	19.38	19.54	20.09
19.47	20.03	20.20	20.08	20.24	20.39
20.21#	-	20.48#	21.08	21.24	21.39
20.47	21.03	21.20	22.07#	-	22.32#
21.47	22.03	22.20	22.38	22.54	23.09

* Asteburutan bakarrik

Ez da Usurbilen geratzen

Goardiako farmaziak 2005eko uda

Uztailak 21, osteguna
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Uztailak 22, ostirala
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Uztailak 23, larunbata
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Uztailak 24, igandea
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Uztailak 25, astelehena
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Uztailak 26, asteartea
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Uztailak 27, asteazkena
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Uztailak 28, osteguna
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Uztailak 29, ostirala
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Uztailak 30, larunbata
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Uztailak 31, igandea
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Abuztuak 1, astelehena
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Abuztuak 2, asteartea
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Abuztuak 3, asteazkena
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Abuztuak 4, osteguna
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Abuztuak 5, ostirala
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Abuztuak 6, larunbata
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Abuztuak 7, igandea
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Abuztuak 8, astelehena
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Abuztuak 9, asteartea
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Abuztuak 10, asteazkena
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Abuztuak 11, osteguna
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Abuztuak 12, ostirala
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Abuztuak 13, larunbata
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Abuztuak 14, igandea
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Abuztuak 15, astelehena
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Abuztuak 16, asteartea
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Abuztuak 17, asteazkena
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Abuztuak 18, osteguna
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Abuztuak 19, ostirala
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Abuztuak 20, larunbata
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Abuztuak 21, igandea
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Abuztuak 22, astelehena
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Abuztuak 23, asteartea
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Abuztuak 24, asteazkena
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Abuztuak 25, osteguna
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Abuztuak 26, ostirala
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Abuztuak 27, larunbata
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Abuztuak 28, igandea
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Abuztuak 29, astelehena
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Abuztuak 30, asteartea
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Abuztuak 31, asteazkena
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Irailak 1, osteguna
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Irailak 2, ostirala
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Irailak 3, larunbata
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Irailak 4, igandea
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Irailak 5, astelehena
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Irailak 6, asteartea
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Irailak 7, asteazkena
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Irailak 8, osteguna
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Irailak 9, ostirala
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Irailak 10, larunbata
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Irailak 11, igandea
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

GAUEKO GOARDIAKO FARMAZIAK
Urte osoan, gaueko goardiako farmazia guztiak
Hernanin egingo dira. Maria Jose Chucla,
Kardaberaz Kalea 48, Hernani (943 55 17 93).

Oharrak !

Txerrimunik ordainetan !

ETXEBIZITZA

- Usurbil edo inguruetan pisua errentan hartuko genuke. Tf: 645722874.
- Usurbilgo bikote gazte batek pisua alokatu nahiko luke Usurbilen. 679 185 102.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Vespa Iris 200 motorra salgai. SS-AL matrikula. Salneurria 600 euro. 656 721 158.
- Garaje bat daukat alokairuan jartzeko Kale Nagusian (Bizkarreko etxeetan) 240 eurotan. 100m2takoa da eta kotxea erraz sartzeko da. 943 458 284.
- Aparkalekuak salgai Bizkarra 1-8 etxe taldean, Kale Nagusia 3 zenbakian. 607 905 859 (Imanol).
- Honda Dominator 650 cc motorra egoera oso onean. 667 172 010 (Jon).
- Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian. Interesatuak: 943 361 235.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Udan umeak zaintzeko prest nago. 943 37 12 77 / 685 722 602 (Nerea).
- Udan haurrak zaintzeko esperientziadun neska euskaldun bat eskeintzen da. Egun osoko disponibilitatea. Interesatuak. 658 759 335.
- Lan egiteko gogoa daukat. Kanpotarra naiz eta edozein lan egingo nuke: portalak garbitu, plantxa egin, kanguro lanak astebukaeratan, pertsona helduekin, fregaderako lanak... 677 552 258 (Sharon).
- Kamarera euskaldun bat eskaintzen da astelehenerik ostiralera lan egiteko. Telefonoa: 667 694 469.
- Emakume bat eskaintzen da astelehenerik ostiralera, pertsona helduak edo ezinduak zaintzeko. Horrelako lanetan aritua. 626 641 155 Mariaje.
- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zerbituetan. 652 757 495.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. Interesatuak deitu (690 784 113).
- Oporretako, ospakizunetako, edozein mota-tako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943 555 835/ 617-242660.

Lan-eskaintzak

- Arratsaldeta umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko pertsona bat behar dugu. Interesatuak deitu 943361991 telefonora.
- Pertsona bat behar dut goizetan etxeko lanak egiteko. 687406209
- Emakume euskaldun bat behar dugu irailetik

aurrera lanean hasteko. Goizeko 10:30tatik 14:30tara etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. Interesatuak 662145584 telefonora deitu.

- Kamarera behar da Antxeta jatetxean astelehenerik ostiralera lan egiteko, eguerdik 12:30etik 16:00ak arte. 943 370 344.
- Harategian lan egiteko pertsona behar dugu, uztailean eta abuztuan. 943 37 20 34.
- Emakume heldu bat behar dugu etxeko lanak egiteko. Eguerdiko lana izango litzateke. Euskalduna izatea nahiko genuke. Interesatuak mesedez deitu telefono honetara: 943 300 518 (M^a Angeles).
- Orioko ilepaindegi batean estetizista bat behar da. Interesatuak deitu 943832729.
- Zaratzko taberna baterako sukaldaria eta zerbitzaria behar dugu. Udarako bakarrik. Interesatuak: 661 97 26 70.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Trailerra saltzen da lanarekin. Interesatuak deitu 649 85 01 31.
- Kalezar azpiko erreka ondoko bide berrian betaurreko batzuk topatu ditut. Galdu badituzu, NOAUA!tik pasa.
- Itsasoan arrantzan egiteko kainabera behar dut. Ahal bada teleskopikoa. Zurea erabiltzen ez baduzu, doan edo merke antzean emateko prest bazaude, gustura hartuko nuke. Tel: 676374812.
- Haur baten jertse berde bat galdu dugu Zubiarrenea kaletik, San Ignazioko autobus geltoki bitartean. Aurkitu duenak mesedez NOAUA!ko egoitzan utz dezala.
- Peugeot 306 Break salgai. 2000-HDI. Matrikula, BPF (2001 azaroa). Garajejan egon da beti. Prezioa: 9.000 euro. Telefonoa: 636 36 49 42.
- Baldintza onetan dagoen 49cc dituen moto Honda bat daukat salgai. Telefonoa: 943 36 45 54.
- Ume baten urrezko pultsera bat galdu dugu. Ianire izena eta data bat dauzka grabaturik. Aurkitu duenak deitu: 667 502 218.
- Bideokamera bat saltzen dut, Canon XL1 semiprofesionala, bateria eta tripodeta barne. Gutxi erabilia. 943 376 902 - 665 749 615 gauzez.
- Kanping-karroa salgai, aluminiozko panelarekin. Karabana bihurtzen da. Telefonoa: 943 55 18 32.
- Pago egur txikitua eta lehorra salgai. Etxera eramaten da. Tf. 615 755 762.

Zorionak Amagoia!

Uztailaren 8an izan zenuten zuen txikia eta zorionak eman nahi dizkizuegu NOAUA!tik. Muxu haundi bat eta ondo izan.



Zorionak Sua eta Amets!

Zorionak gure etxeko bi neskentzat, Mainer eta Jonen partetik eta muxu handi handi bana. Ondo pasa!!

JAIOTZAK

- Imanol Barroso Eleta, uztailaren 5ean.
- Mainer Valin Salaberria, uztailaren 6an.
- Nora Urbe Mugika, uztailaren 8an.

HILDAKOAK

- Miguel Rekondo Aizpurua, uztailaren 11n.

Oharrak - Txerrimunik ordainetan doaneko atalak dira

NOAUA! Kultur Elkarte - Borda Berri, 3 Eguzkitzaldea 20170 Usurbil erredakzioa@noaua.com

Datorren alea irailaren 9an argitaratuko dugu. Zorion-agurren tarte irailaren 2an amaituko da.

H n k n Utz n n, s l z

USU ILG H TZ KLINIK

FE N N E EZ-M SS NENNINGE
NT NI E N L UIZ E

K ! N US , 2 I C 2 17
Tf 337 7 USU IL

USURBILGO EUSKAL OKELA

CARRE DE ISOLINO DE CALDAS DEL TRIA VASCO

h k k l , 4
T H 433 5742

LK T
UT ZE ITZU

F IT K
ZKI K
ETXEK UKTU K
K NOEL TU K

Agenda !

Yoga ikastaroa Aginagan

Irailan hasiko da 2005/2006 yoga ikastaroa. Arrate Zahar Egoitzako kideek aditzera eman dutenez, abuztuaren 31n amaituko da izena emateko epea.

Saioak astelehen eta asteazkenetan egingo dira, 20:00etatik 21:30era. Aukeran, astean egun batez edo bi egunez matrikularazteko aukera dago. Informazio gehiago Arrate egoitzan (943 366 340).

Bai esan?

• Udala.....	37 19 51
• Udaltzaingoa.....	36 11 12
• Obrak eta Zerbitzuak.....	37 01 48
• Anbulategia.....	36 20 13
• Udarregi ikastola.....	36 12 16
• Udarregi (Agerialde).....	36 38 95
• Oiarde kiroldegia.....	37 24 98
• Zumarte.....	37 15 94
• Etumeta.....	37 20 01
• Taxi geltokia.....	36 21 78
• D.Y.A.....	46 46 22
• Ertzantza.....	112
• Suhiltzaileak.....	112
• Larrialdiak.....	112
• Anbulantziak.....	112
• Gure Pakea.....	37 32 28
• Gure Elkarrea.....	37 17 51
• Arrate Egoitza.....	36 63 40
• Eusko Tren.....	47 09 76
• Noaua! aldizkaria.....	36 03 21
• Bake epaitegia.....	37 23 36
• Oa farmazia.....	37 60 76
• Iturralde farmazia.....	36 33 95
• Zubietako Batzarra.....	37 20 77
• Argindarra (Iberduero).....	47 09 76

Literaturaren txokoa !



XXI. mendean ere, hartzak pirinioetan

Saiakera hone-
Stan hartzak jasan duen atzera-kadaren arrazoiak aztertzen dira, baita gizartean, abeltzain, ehiztari eta abarren artean hartzarekiko duten



jarrera ere. Era berean, eta kontserbatu ahal izateko ezinbestekoa izanik, gisa honetako animaliek sor ditzaketen eragozpenak eta horiei aurrea hartzeko neurriak ezagutarazten dira. Urrutixeko iritsi nahiz, azkenik, etorkizunean altxor natural hau kontserbatzeko bidea proposatzen da.

Egin kontu !

Zumarte Musika Eskolako kideak Katalunian izan berri dira, Cantonigros herrian ospatzen den Nazioarteko Musika Jaialdian.

Bi lehiaketetan aurkeztu ziren Zumarte-Oreretako abesbatzako kideak. Folklore izeneko lehiaketan, haur zein helduen abesbatzak aritu ziren kantari, guztira 28 talde. Gure ordezkariak ez zuten saririk jaso baina haur abesbatzen artean puntu gehien lortu zituen Zumarte-Oreretako abesbatza izan zen.

Amerikako Estatu Batuen aurretik Haur Abesbatzen Lehiaketan iritsi zen



saria. Lituania izan zen nagusi eta Zumartekoentzat hirugarren saria izan zen. Atzetik maila handiko taldeak geratu ziren, tartean, Amerikako Estatu Batuak.

txirriStra
KONTSEJU ZAHARRA 13
943 300 400

pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak

TABERNA

GLG
garraioak
ZABOR BILKÆT

TELF: 943 37 01 46

Usurbil Autoak, S. C. L.
Zerbitzu Ofiziala

Zumartegi Poligonoa
Aitzezarra kalea, 1
20170 USURBIL

Tlf: 943 36 10 79
Faxa: 943 36 62 92

ANDONI PINTURAK

Faxada eta
barnelantetan Espezializatua

C/Etxeberri, 8
(kalezar)
Usurbil

Tel.: 943 361 318
Móvil: 605 702 517

edertu!



Depilazioa
Makilajea
Manikura
eguzki dutxall

Zubiaurrenea 4, USURBIL
943 361 951

I
N
T
Z
A

betileen tintatzea
depilazioa
masajea



eska intza bereziak!

943 363 641
KALE NAGUSIA 8



Elexpe
ileapaindegia

Betileen tintaketa
eta permanenten
Estetika
Solariuma
Tatuariak

ESTETIKA
ZENTROA

Muna Lurra 2
943 370 462

TXARO

ile apainketa
zutikako solariuma
eska ezazu bonoa!



Etxebeste 3 - 943 371 685

L
L
IZARRALDE

Kolore, mozketak eta onak
moldeatueta azken
teknikak



Solarium bonoa 35€
Manikura osoa 7€
Pedikura osoa 13€

Zubiaurrenea 5-B 943 361 971

SAIDA

ile apainketa
betileen tintaketa



prezio bereziak jubilatuerei!

Kalezar - 943 372 952

LOURDES
estetika zentroa



LARRAÑAGA

Depilazioa
laser, elektrikoa
eta ohikoa
Solarium
UVA gabeko bronzealua
15min. tan 8 egunerako!

Irazu 12 behea USURBIL - 943 362 887



ILEAPAINDEGIA

Solarium eta
depilazioak

Kale Nagusia 2 - 943 372 844



Agate
ESTETIKA ZENTROA

depilazioa
aurpegiko
tratamendua
manikura
pedikura
solariuma
makilaja

Nagusi 51 - Lasarte-Uria 943 370 549



M. Karmen Esnaola

LURRINDEGIA
ESTETIKA
KONPLEMENTOAK

ZUBIAURRENEA 3 943 362 565

ONDO PASA SANTIOTAN!



ERRAUSTEGIA
EZ

EUSKAL PRESOK
EUSKAL HERRIRA

